Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

5634

EBAZPENA, 2008ko irailaren 12koa, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoko buruarena. Ebazpen honen bidez, instalazio batzuk eraikitzerakoan ukituko diren finken jabeei aurretiko aktak egiteko dei egiten zaie. Instalazio horiek Hernaniko udalerrian, T-9002 eta T-9007 euskarrien artean, Hernani-Usurbil TA linea aldatzeko 30 kV-ko (d/c) aireko eta lurpeko linea elektrikoari dagozkio. 24040/AT-H-2008-28 erreferentzia.

Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Energia eta Meategien zuzendariaren 2008ko uztailaren 16ko Ebazpen bidez, baimena eman zitzaion Iberdrola, Distribución Eléctrica SAUri honako linea elektriko honetako instalazioak eraikitzeko: T-9002 eta T-9007 euskarrien artean, Hernani-Usurbil TA linea aldatzeko 30 kV-ko (d/c) aireko eta lurpeko linea elektrikoa, Hernaniko udalerrian. Herri-onurakotzat ere deklaratu zen ebazpen horretan.

Baimen horrek eta instalazioa herri-onurakotzat deklaratzeak, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 54. artikuluan xedatutakoaren indarrez, honako hauek dakartza: ondasunak okupatu eta eraginpeko eskubideak hartu behar izatea eta okupazioa, gainera, presaz egin behar izatea. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluak presaz okupatzeko deklarazioari dagokionez ezartzen dituen ondorioak ekartzen ditu, 53. artikuluan zehaztutako erregistro ondorioekin.

Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan xedatutakoa betetzearren, Gipuzkoako Lurralde Bulegoko buruak eraginpeko ondasun eta eskubideen jabe eta titularrei dei egitea erabaki du. Aipatu ondasunak okupatu aurretiko aktak Hernaniko udaletxean egingo dira, eta bidezko bada behin betiko okupazioarena ere bai. Beharrezkoa izanez gero, linea jarriko den lekura bertara ere joango da.

Eragina jasango duten ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten pertsona titularrak, eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsona guztiak ere joan daitezke bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai zeharka, euren ordez dagokion baimenarekin besteren bat bidalita; era batera zein bestera,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

5634

RESOLUCIÓN de 12 de septiembre 2008, del Jefe de la Oficina Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por la que se convoca para el levantamiento de las Actas Previas a la ocupación de determinadas fincas afectadas por la construcción de las instalaciones correspondientes a la: línea eléctrica aérea y subterránea a 30 kV d/c, modificación de la línea S.T. Hernani-Usurbil, entre apoyos T-9002 y T-9007, en el término municipal de Hernani. Ref.: 24040/AT-H-2008-28.

Por Resolución de 16 de julio de 2008, del Director de Energía y Minas, del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, se autorizaron a la empresa Iberdrola, Distribución Eléctrica S.A.U. las instalaciones correspondientes a la: línea eléctrica aérea y subterránea a 30 kV d/c, modificación de la línea S.T. Hernani-Usurbil, entre apoyos T-9002 y T-9007, en el término municipal de Hernani y se declaró en concreto la Utilidad Pública.

Dicha autorización y la declaración de Utilidad Pública, que a tenor de lo dispuesto en el artículo 54 de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, (BOE de 28-11-1997), lleva implícita la necesidad de ocupación de los bienes y derechos afectados, da lugar a la urgente ocupación de los mismos y determina las consecuencias que para la declaración de urgente ocupación dispone el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954, con los efectos registrales del artículo 53 de la misma.

En su virtud, el Jefe de la Oficina Territorial de Gipuzkoa, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954 citada, ha resuelto convocar a los propietarios y titulares de los derechos afectados, en el Ayuntamiento de Hernani, donde radican los bienes afectados, como punto de reunión para llevar a cabo el levantamiento de las actas previas a la ocupación de los bienes afectados y, si procediera, el de la ocupación definitiva, sin perjuicio de trasladarse al terreno en caso necesario.

Todos los interesados, así como las personas que sean titulares de cualquier clase de derechos o intereses sobre los bienes afectados, deberán acudir personalmente o bien representados por personas debidamente autorizadas, aportando documentos acreditativos de su titularidad y el último recibo de la contribución, pudiendo

titulartasuna egiaztatzeko agiriak eraman beharko dituzte, baita kontribuzioko azken ordainagiria ere. Hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Okupazioa egin aurreko aktak 2008ko urriaren 27 eta 28an egingo dira; dena dela, titularretako bakoitzari jakinaraziko zaio, horretarako zitazio-zedula bidalita, aktak zein lekutan, zein egunetan eta zein ordutan egingo diren. Horrez gain, egin beharreko gainerako argitalpenak ere egingo dira, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluari jarraituz.

Desjabetzeko espedientean, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk onuradun izaera hartuko du.

Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Araudiaren 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek zein eskubide erreal zein interes ekonomikoen titular izan eta argitaratutako zerrenda horretan sartu gabe geratu ahal izan direnek, egoki iritzitako alegazio guztiak aurkeztu ahal izango dituzte, eragina jasango duten ondasun eta eskubideen zerrenda horretan egon litezkeen okerrak zuzentzeko, eta horretarako bakarrik. Alegazio horiek idatziz aurkeztu beharko dira Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoan (Easo kalea 10, 20006 Donostia), eta hori egiteko epea ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko egunean amaituko da.

Donostia-San Sebastián, 2008ko irailaren 12a.

Lurralde Bulegoko burua,
JAVIER LÓPEZ LARRINAGA.

hacerse acompañar por un perito y un notario si lo estiman oportuno.

El levantamiento de actas previas tendrá lugar los días 27 y 28 de octubre de 2008, comunicándose la orden del levantamiento a cada titular mediante envío de cédula de citación en la que se señale lugar, día y hora, procediéndose, asimismo, a las demás publicaciones establecidas en el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa.

En el expediente expropiatorio, la empresa Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U., asumirá la condición de Beneficiaria.

Asimismo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 del Reglamento de Expropiación Forzosa, los interesados así como las personas que siendo titulares de derechos reales o intereses económicos que se hayan podido omitir en la relación publicada, podrán formular por escrito a la Oficina Territorial de Gipuzkoa, del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, sita en la c/ Easo n.º 10 de Donostia-San Sebastián - 20006, hasta el día señalado para el levantamiento de las actas previas, las alegaciones que estimen oportunas, a los sólos efectos de subsanar los posibles errores en que se haya podido incidir al relacionar los bienes y derechos que se afectan.

En Donostia-San Sebastián, a 12 de septiembre de 2008.

El Jefe de la Oficina Territorial,
JAVIER LÓPEZ LARRINAGA.

Erref./*Ref.*: 24040/AT-H-2008-28

Hernani-Usurbil TA linea aldatzea aireko eta lurpeko 30 kV-ko (d/c) linea elektrikoan, T-9002. eta T-9007. euskarrien artean, Hernaniko udalerrian.

Línea Eléctrica Aérea y Subterránea a 30 kV D/C, modificación de la Línea St Hernani-Usurbil, entre apoyos T-9002 y T-9007, en el término municipal de Hernani.

Lursaila *Finca*	Udalerria *Término municipal*	Jabea *Propietario*	Helbidea *Domicilio*	Hila *Mes*	Eguna *Día*	Ordua *Hora*
1	Hernani	José M.ª Garin Echeverria	Osiñaga Bailara, 43-1. 20120 - Hernani	Urria *Octubre*	27	09:30
2	Hernani	Angel Alberdi	Aiete Pasealekua, 53-2. B 20009 - Donostia–San Sebastián	Urria *Octubre*	27	10:00
4	Hernani	Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga, S.A.	Zikuñaga Bailara, 54 20120 - Hernani	Urria *Octubre*	27	10:30
6	Hernani	Martin Zabaleta Larburu	Antziola auzoa, 2-3. B 20120 - Hernani	Urria *Octubre*	27	11:00
7	Hernani	Aitor Iguaran Goikoetxea	Lategi auzoa, 19-B-1. 20130 - Urnieta	Urria *Octubre*	27	11:30
9	Hernani	Miguel M.ª Roteta	Portu auzoa 18 behea/bajo 20120 - Hernani	Urria *Octubre*	27	12:00
11	Hernani	José Antonio Quintans Fuentes	Gudarien Enparantza 11-2. 20120 - Hernani	Urria *Octubre*	27	12:30
12	Hernani	Juan Miguel Astiz	Elizatxo, 19-2. ezk./izda. 20120 - Hernani	Urria *Octubre*	28	10:00
14	Hernani	Julen Lizaso	Elizatxo, 70-1. I 20120 - Hernani	Urria *Octubre*	28	10:30
17	Hernani	Luis María Aristorena	Karobieta 28 behea/bajo 20120 - Hernani	Urria *Octubre*	28	11:00
19	Hernani	Aniceto Soriazu Arriaran	Elizatxo, 69 20120 - Hernani	Urria *Octubre*	28	11:30
20	Hernani	J. Bautista Garmendia Izaguirre	Karobieta, 38 20120 - Hernani	Urria *Octubre*	28	12:00
20	Hernani	Arantza Izaguirre Izaguirre	Elizatxo, 67 20120 - Hernani	Urria *Octubre*	28	12:30